

2024. URTEKO AZALPEN TXOSTENA

MUBIL FUNDAZIOA

2023 urtean, batetik, MUBIL Fundazioaren bulegoak eta energia biltegitratzeko laborategia hartzen dituen behin-behineko egoitzaren erreferentzia sendotu da. Bestetik, eta bereziki, urrats garrantzitsuak eman dira bai Eskuzaitzetako (Zubieta) MUBILen behin betiko egoitzaren eraikitze lanetan, baita bertako 2 eta 3 laborategietako ekipamenduaren erosketa prozesuetan zein horiek kudeatuko dituzten gestore teknologien hautaketan. Beraz, MUBIL Poloaren garapenean aurrerapauso esanguratsuak eman direla esan daiteke, MUBILen behin betiko egoitzaz gain, bertan finkatuko diren sektoreko beste ekimen eta erakundeak erakartzea eta lotzea lortu baita (Cidetec, Tecnalía, Ceit edo Vicomtech).

Bestalde, MUBILen gainontzeko hiru lan-eremuetan (Ezagutzaren kudeaketa, Ekintzailletza eta Living Lab-ean) lanean segitu da, zerbitzu eta produktu berriak definituz eta aurretik zetozenak indartuz eta garatuz (MMA Sariak, prestakuntza-ikastaroak, MME Azoka, lankidetzak hitzarmenak...).

Hori horrela, 2024an MUBIL Poloa garatzen jarraitzea funtsezkoa izango da, eta ondorengoak lirateke 2024rako MUBILen jarduera-ildo nagusiak:

- Eskuzaitzetako MUBILen behin betiko egoitza eraikitze prozesuarekin amaitzea eta bertara lekualdatzea.
- 1 laborategia (Energy Storage Systems) Tolosatik Eskuzaitzetara trasladatzea eta bertan martxan jartzea.
- Eskuzaitzetan 2 eta 3 laborategiak (Electric Powertrain eta Fuel Cell) martxan jartzea.
- Ekintzailletza sustatzearekin eta ezagutza kudeatzearekin lotutako zerbitzuak, jarduerak hedatzea eta finkatzea, hala nola, Mubil Mobility Awards (MMA) sarien laugarren edizioa eta Mubil Mobility Expo (MME) Azoka.
- MUBIL Poloaren posizionamenduan lan egitea, nazioarteko misioak garatuz eta lotura edo lantalde berriak hedatuz.
- Lurraldeko eragileen lankidetzak-sarea zabaltzen jarraitzea, lan-eremu guztietan.

INFORME EXPLICATIVO 2024

MUBIL FUNDAZIOA

Durante el año 2023, por un lado se ha reforzado la referencia de la sede provisional de MUBIL Fundazioa, que abarca las oficinas centrales y el laboratorio de almacenamiento de energía. Por otro lado, y sobre todo, se han dado pasos importantes tanto en la fase de construcción de la sede definitiva da MUBIL ubicada en Eskuzaitzeta (Zubieta) como en los procesos de compra de los equipamientos para los laboratorios 2 y 3 y la selección de los gestores tecnológicos que se encargarán de su gestión. En consecuencia, se puede decir que ha habido un gran avance en el desarrollo del Polo MUBIL, ya que además de la sede definitiva de MUBIL, también se ha logrado atraer y confirmar otras iniciativas que se instalarán en el Polo (Cidetec, Tecnalía, Ceit o Vicomtech).

Por otro lado, se ha continuado con el trabajo en los otros tres ámbitos de trabajo de MUBIL (Gestión del conocimiento, Emprendimiento y Living Lab), definiendo nuevos servicios y productos, así como desarrollando y fortaleciendo los que ya estaban en marcha (Premios MMA, cursos de formación, Feria MME, convenios de colaboración...).

Dicho esto, el año 2024 será clave para seguir desarrollando el Polo MUBIL, y estas serían las principales líneas de actuación de MUBIL:

- Finalización del proceso de construcción de la sede definitiva de MUBIL en Eskuzaitzeta, y el traslado a la misma.
- Traslado desde Tolosa a Eskuzaitzeta del laboratorio 1 (Energy Storage Systems) y su puesta a punto en el nuevo destino.
- Puesta en marcha de los laboratorios 2 y 3 (Electric Powertrain y Fuel Cell) en la sede definitiva de Eskuzaitzeta.
- Despliegue y consolidación de servicios y actividades relacionadas con el impulso al emprendimiento y gestión del conocimiento, como por ejemplo la cuarta edición de los premios Mubil Mobility Awards (MMA) y la feria Mubil Mobility Expo (MME).
- Trabajar en el posicionamiento del Polo MUBIL, desarrollando misiones internacionales y desplegando nuevos vínculos y grupos de trabajo.
- Seguir ampliando la red de colaboración de agentes del territorio en todos sus ámbitos de trabajo.